




LH-6. MAILA
6. UNITATE DIDAKTIKOA
"Berdintasunez bizi familian"



LH6-6UD. BERDINTASUNEZ BIZI FAMILIAN: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Aurreko unitateetan landutako oinarrizko gaiei berriro ekin eta ikasleek TRATU ONAK defendatzeko konpromisoa hartzea lortu nahi da. Familian berdintasunez eta askatasunez biziz, eguneroko elkarbizitzan Giza Eskubideak gauzatzea, errespetua eta tratu onak garatuz.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p>1. Giza Eskubideetarako eta tratu onetarako hitzez eta portaerez betetako etxe bat. Familiaren etxebizitza, familia partekatzen duten emakume eta gizonen berdintasuna eta Giza Eskubideak errespetatuz, ondo elkarbizitzen lagunduko duten hitz positiboek beteta. Bidea erakuts dezaketen eta esan eta aldarrikatu behar diren hitz onez beteta.</p>	<p>1. Hitz eta tratu onak. Arazorik gabe osatu dituzte hitz positibo guztiak? Eta portaera positiboak? Zalantzaren bat eduki dute? Zein? Zergatik? Ondo identifikatu dituzte beste lau portaera positibo? Neskek zein mutilek antzeko portaerak identifikatu dituzte? Desberdintasunak egon dira? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→ Hitzak baino gehiago. Hitzak da lehen ekintza. Babesa, poza, zorientasuna, samurtasuna, maitasuna, konpainia, planak, autonomia, lanak, festak, ospakizunak, elkarrekiko zainketa, elkarren ardura, erantzunkidetasuna, denbora, entzutea, enpatia, aniztasuna errespetua, askatasuna...</p> <p>→ Giza eskubideen eta tratu onen familia. Eguneroko familiaren elkarbizitza eta harremanak berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako, errespeturako, tratu onak emateko eta jasotzeko eta elkar zaintzeko.</p>
<p>2. Inguruko bikote harremanak berdintasunaren ikuspegitik aztertzea eta baloratzea. Beharrezkoa da neska eta mutil gazteen arteko harremanak berdintasunaren ikuspegitik aztertzea eta ulertzea. Identifikatu zein diren benetako maitasunerako positiboak eta zeintzuk ez, eta zergatik. Beraien harremanak eraikitzeke erreferentzia errealak eduki ditzaten.</p>	<p>2. Bikote harreman onak. Ondo antzeman dituzte bi aholku eskaeren erantzunak? Zalantzaren bat egon da? Neskek zein mutilek aholku berberak aukeratu dituzte? Desberdintasunen bat egon da? Zergatik? Zer adierazten du horrek? Ondo ulertu dituzte maitasunaren aldeko eta aurkako erantzunak? Beste aholkuren bat proposatu dute neskek edo mutilek?</p>	<p>→ Familiaren proiektu komuna. Senide guztien bizitza proiektu pertsonalak errespetatzen, babesten, bultzatzen, ahalbidetzen eta laguntzen duen familiaren proiektua.</p>
<p>3. Tratu txarrei aurrea hartzeko, ezagutza eta prebentzioa garatzea. Tratu txarren hasieran dauden hitz, jarrera eta portaera arriskutsuak identifikatzea da prebentziorik onena. Hori eta inguruan eduki ditzaketen hitz, portaera eta harreman onak ezagutzea, baloratzea, eskertzea eta erreferentzia bilakatzea.</p>	<p>3. Puntu lilak, puntu onak. Neskek zein mutilek ondo identifikatu dituzte tratu txarrak izateko arriskuak eta maitasunaren eta tratu onen alde egiteko puntu lilak? Ariketa bietan? Zalantzaren bat egon da? Zein? Zergatik? Balorazio desberdinen bat egon da nesken eta mutilen aldetik? Zein? Zergatik? Zer adierazten du horrek?</p>	<p>→ Familiako tratu onen egileak. Familian tratu onak gauzatzen dituzten hitzak eta ideiak, jarrerak eta portaerak. Identifikatu eta izendatu, positiboki baloratu eta garatu. Tratu onak ez dira familian berez eta bat-batean sortzen. Senide guztien eguneroko ahaleginaz pilatutako puntu lilak osatzen dira, garatzen dira, gauzatzen dira.</p>

→ **Familiaren eguneroko bizitzan, hitzez hitz eta ekintzaz ekintza, Giza Eskubideak eta tratu onak gauzatu.**